

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ESPAZIO PUBLIKO ETA AUZOEN SAILA

Dirulaguntzen deialdi publikoa, hirian salgaiak banatzen, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetan edota taxi gisa baliatzeko ibilgailu elektrikoak erosteko 2026an

1. artikulua: xedea

Dirulaguntza hauen bidez, Vitoria-Gasteizko Udalak hiriko ibilgailuen elektrifikazioa sustatu nahi da, xede harturik airearen kalitatea hobetzea, eta kutsadura akustikoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emango dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko urriaren 16ra bitartean ibilgailu elektriko berriak erosteko, baldin eta oinarri hauek betetzen badituzte.

Asmo horrekin, dirulaguntza-deialdia 3 programatan banatuko da —ibilgailuaren tipologia-ren eta erabileraren arabera— hauetakoren bat erosi nahi dutenei laguntzeko:

— Taxia, bi modalitatetan:

- Egokitu gabeak: ehuneko 100 elektrikoak.
- Egokituak: ehuneko 100 elektrikoak edo ECO etiketa dutenak.

— Zama-bizikletak, ehuneko 100 elektrikoak. Deialdi honetako jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren ibilgailuaren osagarriak ere diruz lagunduko dira.

— Industria-ibilgailu arinak: ehuneko 100 elektrikoak.

Diruz lagunduko dira operazio hauek: ibilgailu berriak jabetza-erregimenean erostea; ibilgailuak finantza-leasing bidezko finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzea; eta ibilgailuak renting bidez (leasing operatibo ere deitzen zaio) erretan hartzea.

2. artikulua: dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau indarrean dagoen dirulaguntzen 2025-2027 plan estrategikoan jasota dago (zeina Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi baitzuen 2025eko urtarrilaren 17an) Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntza-lerro honen fitxaren aldaketa onetsi ondoren oinarri hauen onespenerekin batera. Hau da, 15_10_v01 Vitoria-Gasteizen salgaien hiri banaketan zein taxi-gidari lanetan aritzeko asmoz ibilgailu elektrikoak erostea fitxaren ordez 15_10_v02 hirian salgaiak banatzen, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetan edota taxi gisa baliatzeko ibilgailu elektrikoak erosteko fitxa onartzen da.

Deialdi honen bidez lortu nahi den helburua mugikortasun jasangarria sustatzea da.

3. artikulua: araubide juridikoa

2023ko uztailaren 28an argitaratu zen ALHAOn (88. zenbakia) Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokor berria. Ordenantza horren bitartez, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezarri ziren. Udalaren web-orrian dago eskura, gardentasun-printzipioa dela-eta.

Deialdiko dirulaguntzak arau hauetan xedatutakoaren bidetik kudeatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; hura garatzen duen erregelamendua, zein uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, zein 2023ko apirilaren 21eko erabakiaren bidez onetsi baitzuen Osoko Bilkurak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

4. artikulua: onuradunak

Onuradun izan daitezke:

1. Taxi elektrikoa eskuratzeari dagokionez.

1.1. Vitoria-Gasteizko Udalak emandako taxi-lizentzietako baten jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta ibilgailu elektriko berri batekin ordeztan badute lehendik lizentzia horri atxikitako ibilgailua.

1.2. Vitoria-Gasteizko taxi-elkarteak, baldin eta ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko bat edo mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektrikoa den bat edo ECO ingurumen-bereizgarria duen bat erosten badute, dela ordeztako ibilgailu gisa, dela zerbitzuak osatzeko asmoz.

2. Zama-bizikleta elektrikoa eskuratzeari dagokionez.

Salgaiak banatzeko, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetarako lanak egiteko edo pertsonak garraiatzeko zama-bizikleta berri bat erosten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Industria-ibilgailu arinak elektrifikatzeko.

Pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta ibilgailu industrial ehuneko 100 elektriko arin eta berri bat bereganatzen badute Vitoria-Gasteizen banaketa-lanak edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuak egiteko.

5. artikulua: dirulaguntza eskuratzeko bete behar diren betebeharrak eta baldintzak

Onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 12. artikuluan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Baldin eta ibilgailua finantza-eragiketen bidez eskuratzen bada (leasing edo renting bidez), renting bidezko errentamendu-kontratuak gutxienez 5 urtekoak izan behako dira, ez epe horretatik beherakoak.

Deialdi honetako onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte bereziki:

1. Taxi elektrikoa eskuratzeari dagokionez:

– Vitoria-Gasteizko Udalak emandako taxi-lizentzietako baten jabe izatea.

– Egungo ibilgailua beste ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko batekin ordezte (salbuespen dira taxi egokituak, horietan ibilgailu ehuneko 100 elektrikoak edo ECO ingurumen-bereizgarriak onartuko baitira).

– Gutxienez 5 urtez erabiltzea ibilgailu eskuratu berria dirulaguntza justifikatzen duen jardueran.

2. Zama-bizikleta elektrikoa eskuratzeari dagokionez:

– Salgaiak banatzeko jarduera edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuak garatzea. Hori jarduera-lizentziaren edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren (aurrerantzean, EJZ) bidez egiaztatuko da. Pertsonak garraiatzeko ez da beharrezkoa izango.

– Gutxienez 5 urtez erabiltzea dirulaguntza justifikatzen duen ibilgailu eskuratu berria.

3. Industria-ibilgailu arinak elektrifikatzeko:

– Vitoria-Gasteizen egitea salgaien banaketako jarduera edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzua; jarduera-lizentziaren edo EJZren bidez egiaztatuko da hori.

– Gutxienez 5 urtez erabiltzea ibilgailu eskuratu berria dirulaguntza justifikatzen duen jardueran.

– Txatar bihurtzea, eskatzailearen jabetzakoa izanik, jarduera berbererako erabiltzen zen ibilgailu industrial arin bat.

– Onartutako ibilgailuak:

Salgaiak banatzeko zerbitzuetarako edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetarako egokitu daitezkeen ibilgailu industrialak, komertzialak edo mistoak onartuko dira, baldin eta eraikuntza-irizpidearen arabera sailkatuta badaude, ibilgailuen erregelamendu orokorraren II. eranskineko 20., 21., 24., 25., 30. eta 31. kodeekin (ibilgailuen definizioak eta kategoriak), eta zirkulazio-baimenean halakotzat jasota badaude.

Onuradun guztiek bete beharreko eskakizunak:

– Ordezkatu edo txatar bihurtu beharreko ibilgailuek ehuneko 100eko errekontza-motorra izango dute.

– Dirulaguntza zertarako baliatzen ari den jakiteko beharrezko agiri oro aurkeztea udalari, hark halakorik eskatuz gero.

– Ibilgailua berria izatea.

Ibilgailu berrizat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 13.2 artikuluan ezarritakoak (urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea). Berrizat joko dira, haiei dagokienez, jarraian adierazten diren inguruabarretakoren bat gertatzen denean (bata edo bestea):

1. Lehen aldiz martxan jarri eta sei hilabete igaro baino lehen entregatzea (lurreko motordun ibilgailuen kasuan).

Garraibide bat zerbitzuan jartzeko datatzat hartuko da erkidegoaren barruan behin betiko edo behin-behineko lehenengo matrikulazioari dagokiona, eta, halakorik ezean, kasuan kasuko garraibidearen aseguru-kontratu antzinakoenean jasotzen dena, alegia, haren erabileraren ondoriozko balizko erantzukizun zibila estaltzen duen aseguru kontratuan ageri dena edo, bestela, Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez ondorioztatzen dena, erabilera-egoe-raren irizpidea barne.

2. Lurreko ibilgailuek 6.000,00 kilometro baino gehiago egin ez izana.

Zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatuko da hori, eta, bereziki, garraibideei erantsitako kontagailuekin, manipulatu ez direla egiaztatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Zama-bizikletaren kasuan, udalak berria eta lehen erabilerakoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango du.

– Agiriak egiaztatzeko jardueren mende jartzea, eta baita ere Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende.

– Diruz lagundutako ibilgailuaren eskuratzea finantzatzen duen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri ematea Mugikortasuna Kudeatzeko Atalari.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Eskakizun hori, dirulaguntza esleitzen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean eta dirulaguntza ordaintzen denean eduki beharko da beteta. Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak agertuz.

– Jasotako zenbatekoa zertarako baliatu den justifikatzen duten agiriak gordetzea, kontrol eta egiaztapen jardueren mende egon daitezkeen bitartean.

– Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak urratuz gero, jasotako funtsak itzultzea.

6. artikulua: gehieneko kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro da, 2026/152002.4412,77000- "Garraioa elektrifikatzeko laguntzak" partidaren kontura.

2. Zenbateko hori agortzen denean ez da laguntza gehiago emango.

7. artikulua: laguntza ekonomikoak

Laguntzen zenbatekoa desberdina izango da, eskuratutako ibilgailuaren arabera. Zehazki, honako laguntza hauek ezartzen dira:

1. Taxien kasuan, zuzkidura 40.000,00 eurokoa da.

– Lizentzia duen taxi bat ordeztzeko ibilgailu ehuneko 100 elektriko berria erosteagatik: 10.000,00 euro ibilgailu bakoitzeko.

– Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako ECO ingurumen-bereizgarridun ibilgailu berria erosteagatik: 10.000,00 euro ibilgailu bakoitzeko.

– Mugikortasun urrituko pertsonentzako egokitutako ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko erosteagatik: 20.000,00 euro ibilgailu bakoitzeko.

2. Zama-bizikleten kasuan, zuzkidura 35.000,00 eurokoa da.

– Zama-bizikleta berri bat eta haren osagarriak erostea salgaiak banatzeko, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetarako edo pertsonak garraiatzeko, eta ehuneko 100eko errekuntzako motorra duen ibilgailu bat txatar bihurtzeko: zergak ordaindu aurretiko prezioaren ehuneko ehuneko 90, eta ezin izango da 5.000,00 eurotik gorakoa izan bike-karguko.

– Zama-bizikleta berri bat eta haren osagarriak erostea salgaiak banatzeko, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetarako edo pertsonak garraiatzeko: zergak ordaindu aurretiko prezioaren ehuneko 60, eta ezin izango da 3.500,00 eurotik gorakoa izan bike-karguko.

3. Ibilgailu industrial arinaren kasuan, zuzkidura 75.000,00 eurokoa da.

– Salgaiak banatzeko eta ibilgailu industrial ehuneko 100 elektriko arin bat erostea eta ibilgailu industrial arin bat txatar bihurtzea: 15.000,00 euro ibilgailu bakoitzeko.

Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaile bakoitzeko, ibilgailu bakar batentzako dirulaguntza emango zaio eskatzaile bakoitzari (kontuan hartu gabe zenbat eta zer motatako ibilgailuak eskuratzeko eskaria egin duen), salbu eta deialdiaren epea amaitu ondoren ez den guztiz agortu laguntzen zenbatekoa.

8. artikulua: beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Laguntza hauek bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

2. Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu, inolaz ere, diruz lagundutako ibilgailuaren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste nonbaitetik jasotako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batuta ere.

3. Onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote Vitoria-Gasteizko Udalari udal-ebazpenaren ondoren beste administrazio publiko batzuegandik proiektu bererako dirulaguntza edo laguntzak jasotzen badituzte, jakin bezain laster.

9 artikulua: eskabideak

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2026ko urriaren 16an amaituko.

9.1. Dokumentazioa aurkezteko bideak.

– Egoitza elektronikoaren bidez.

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan adierazitako subjektuek ezinbestean erabili behar dute kanal elektronikoa.

– Aurrez aurre.

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa aurrez aurre aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko Udalaren San Martineko udal bulegoetan edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16. artikuluan adierazitako moduetan.

Eskabideak ez baditu betetzen deialdian ezarritako betebeharrak, 10 eguneko epe luzaezina emango dio organo eskudunak interesdunari okerrak zuzentzeko. Orobat jakinaraziko dio hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela, Prozedura Erkidearen Legearen 21. artikulua agintzen duen eran behar den ebazpena eman ondoren.

9.2. Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza honen xede diren laguntzak eskuratu nahi dituztenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Dirulaguntzen eskabide orokorraren inprimakia, behar bezala dokumentatua.

b) I. eranskina: ibilgailua erosi izana justifikatzeko dokumentazioaren atala bete behar da, agiri hauek barne (dagokionaren arabera).

b.1. Ibilgailuaren kontratua edo faktura.

b.2. Jardueraren egiaztagiria, salgaien banaketa edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuak barne direla, pertsonen garraiorako zama-bizikletentzako izan ezik.

b.3. Eskatutako laguntzen zerrenda.

b.4. Dirulaguntza zein ibilgailurako baliatu den, ibilgailu horrekin Emisio Gutxiko Eremuan jardungo duela dioen berariazko adierazpena.

Une horretarako eskatzaileak ibilgailu berria eskuratua badu, inprimaki horretan ibilgailu berriaren datuen atala bete beharko du.

b.5. Ibilgailuaren datuak (une horretarako ibilgailua eskuratua izanez gero).

– Zirkulazio-baimena.

– IAT txartel teknikoa.

– Ibilgailua txatar bihurtu dela baieztatzen duen ziurtagiria, halakorik behar izatera.

Dirulaguntza eskatzeko unean ibilgailu berririk artean ez izatera, hura jaso ondoren, eta gehienez ere hilabeteko epean, atal hori beteta aurkeztu beharko du eskatzaileak dagokion fakturarekin batera. Horrez gain, eta ibilgailu zaharrari dagokionez, I. eranskina aurkeztu beharko da, hura txatar bihurtu dela justifikatzeko atala beteta.

c) II. eranskina: justifikazio-kontu sinplifikatua.

9.3. Ezin izango dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskuratu oinarrietako 5. artikuluan xedatutakoa betetzen ez duten eskabideek, ez eta eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek ere.

10. artikulua: dirulaguntzak eman eta ebazteko prozedura

1. Dirulaguntza-deialdi honetara bideratuko den aurrekontu-kreditua 7. artikuluan ezarritako laguntza-zenbatekoen arabera banatuko da, deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen alde. Aukera hori zabalik egongo da oinarri hauetan ezarritako epe barruan, harik eta aurrekontu-zuzkidura agortzen den arte.

Lehentasuna emango zaie deialdi hau argitaratzen den egunetik 2026ko urriaren 16ra bitartean erositako ibilgailuei. Aldi hori amaituta, baldin eta artean aurrekontu-zuzkidurarik geratzen bada, aintzat hartuko dira 2026ko urtarrilaren 1etik deialdia argitaratzen den egunera arte erositako ibilgailuei dagozkien eskabideak.

Ibilgailu industrial arinak erosteko laguntzen kasuan, dirulaguntzak konkurrentzia sinplearen bidez emango dira: lehentasun-hurrenkera honen arabera antolatuko dira baldintzak betetzen dituzten eskabideak, betiere zuzkidura baliagarria agortu arte:

1. Jarduera bati atxikitako ibilgailu industrial arina, egoitza soziala emisio gutxiko eremuaren barruan duena.

2. 8:00etatik 20:00eta bitartean, EGE barrura urtean gutxienez 60 aldiz sartzen diren (eta aldiko gutxienez 15 minutu egiten duten) ibilgailu industrialak.

3. Deialdiaren eskakizun orokorrak betetzen dituzten gainerako eskabideak.

Hurrenkera horren arabera, kontuan hartuko da eskabidea eta deialdian adierazitako agiri guztiak zer egunetan eta ordutan aurkeztu diren, edo, agiriren bat aurkeztu ez bada, errekeritutako agiri hori edo horiek zein egunetan aurkeztu diren.

Taxiak eta zama-bizikletak erosteko laguntzen kasuan, dirulaguntzak konkurrentzia sinplearen bidez emango dira; lehentasun-hurrenkera, bestalde, deialdian adierazitako agiri guztiak behar bezala aurkeztu den eguna eta orduari erreparatuta osatuko da, edo falta diren agiri horiek aurkeztu diren egunari, baldin eta agiriren bat edo batzuk aurkeztu gabe utzi izan badira.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaiturik, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo soberako kredituarekin, eskabideak baloratzeko ardura duen organoak programa jakin batzuetatik beste batzuetara kreditua aldatzeko ahalmena izango du, betiere deialdi honetan onetsitako aurrekontu-kreditua gaingitu gabe, eta ibilgailu mota hurrenkera honetan lehenetsiko delarik: zama-bizikleta lehenik, ibilgailu industrial arinak gero, eta taxia azkenik.

Gerta daiteke geratu den kreditua deialdian adierazitakotik beherakoa izatea —ordurako gainerakoa eman izan delako—; laguntza, hala gertatuz gero, geratzen den zenbateko horretara mugatuko da.

2. Udalaren Espazio Publikoaren eta Auzoen Saileko langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta ofizioz egingo ditu eskatutako ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak ezarri, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Eskabideak jaso ondoren, tramitatzeko onartuko dira, baldintzak betetzen dituztela eta eskabideak egokiak direla egiaztatu ondoren, eta horretarako eratutako balorazio-batzordeak proposamena egingo du.

3. Balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute: Espazio Publiko eta Auzoen Saileko Mugikortasuna Kudeatzeko Unitateko teknikariek (zehazki, unitateko buruak), unitateko teknikari batek eta Administrazio Orokorreko teknikari batek.

4. Dosiera eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, instrukzio-organoak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Dirulaguntza emateko ebazpenean hauek zehaztuko ditu:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
- b) Dirulaguntzaren izaera eta zein baldintzatan emango den.
- c) Zer-nolako kontrol-bideak baliatuko diren, eta zenbatean behin.

5. Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko eskumena duen organoa.

6. Ebazpena emateko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea 2026ko abenduaren 4a izango da. Epe hori ebazpen espresurik eman gabe igaroz gero, ezetsizat joko da dirulaguntza-eskabidea.

Dirulaguntzak emateak edo ukatzeak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta horren aurka dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira.

a) Aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo presuntzios ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

7. Vitoria-Gasteizko Udalak eskatzaileei jakinaraziko die eskatutako dirulaguntza eman zaien ala ez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoaren arabera.

11. artikulua: dirulaguntza ordaintzea

Ibilgailua jabetza-erregimenean erosten denean, dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, deialdia ebatzi eta onuradunei jakinarazi ondoren, alde aurreko ordainketa bidez, eta itzuli beharrik gabe.

Ibilgailua finantza-leasing bidezko finantzaketa-eragiketen bidez edo renting bidez (leasing operatibo ere deitzen zaio) erretan hartzen denean, emandako dirulaguntza bi ordainketa egingo dira. Lehenengoa, ehuneko 80koa, deialdia ebatzi eta onuradunei jakinarazi ondoren, alde aurreko ordainketa bidez, eta itzuli beharrik gabe; bigarrena, gainerako ehuneko 20a, deialdiaren oinarrien 14. artikulua arabera justifikazioa egiaztatu ondoren.

Ordainketa bakarra edo, hala badagokio, lehen ordainketa eskatzaileak adierazten duen banku-kontuan ordainduko da, 2026ko abenduaren 31 baino lehen.

12. artikulua: diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua erosteko gastuak, eta, zama-bizikleten kasuan, baita beharrezko osagarriak erostekoak ere, BEZik gabe, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 31.8 artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 30.8 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

13 artikulua: itzultzea

Deialdi honetan ezarritako betebeharrak bete ezean, edo ordenantza orokorraren 19. artikuluan ezarritakoak (Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluekin lotuta) bete ezean, edota oinarrietan eskatzen diren datuak eta betekizunak faltsutuz edo ezkutatuz gero, itzuli egin beharko da dirulaguntza, dagozkion berandutze-interesak barne.

Baldin eta urraketak zerikusia badu jardueran gutxienez 5 urtean aritzearekin eta/edo Emisio Gutxiko Eremuan sartzeko aldien kopuruarekin, jasotako laguntzaren ehuneko 20 (horri dagozkion berandutze -interesekin batera) itzuliko da urraketa egindako urte edo frakzio bakoitzeko.

Emisio Gutxiko Eremuaren barruan jarduteko baldintza ez dela urratu adituko bada, urtean gutxienez 60 sartu-irten egin beharko dira hartara, horietako bakoitza 15 minutukoa gutxienez.

Baldintza hori betetzen dela egiaztatuko du udalak, laguntza jaso duen ibilgailua EGEn sartu den egun eta orduen zerrenda baten bitartez, zein Emisio Gutxiko Eremua kontrolatzeko asmoz instalatutako kameraren eta matrikula-irakurgailuen sistemak emango baitu.

Ibilgailua erabilgarri dagoenetik hilabeteko epean ez bada 9. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu, itzuli egin beharko da dirulaguntza, horri dagozkion berandutze-interesekin batera.

Dirulaguntza ibilgailu zaharra txatar bihurtzeko baldintzarekin eskatzen bada, eta prozesu hori hilabete baino gehiago atzeratzen bada, ibilgailu bat beste batekin ordezkatzearen justifikazioa aurkeztu beharko da.

Nolanahi ere, baldin eta 2027ko urriaren 16rako eskatzaileak ezin badu egiaztatu ibilgailua baliagarri duela, itzuli egin beharko du dirulaguntza.

Pertsona onuradunak hartutako konpromisoak ia osorik bete dituzenean eta konpromiso horiek asebetetzeko egoki jardun duela egiaztatzen denean, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioak zehaztuko du itzuli beharrekoaren zenbatekoa.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 19.3 artikuluan aurreikusitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion berandutze-interesak exijitu ahal izango dira.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko ordenantzaren, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakoari jarraituko dio dirulaguntza itzularazteko prozedurak.

14. artikulua: dirulaguntzak justifikatzea

2027ko abenduaren 31n bukatuko da justifikatzeko agiriak aurkezteko epea.

Pertsona onuradunek diruz lagundutako jardueraren aurrekontuko ehuneko 100 justifikatu beharko dute, ez soilik Vitoria-Gasteizko Udalak emandakoa, hala xedatzen baitu Dirulaguntzei buruzko Legearen 30. artikulua; udalari egozten zaion gastuen kostua zehaztu beharko da.

Onuradunak dirulaguntza justifikatu beharko du, eta, horretarako, egindako gastuaren justifikazio-kontu arruntaren inprimakia aurkeztu beharko du, zeinak, Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean argitaratuta dago (<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/69/41/96941.pdf>). Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantzaren 33. artikulua araberako, honako hauek jaso behar baititu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta: nahikotzat joko da kontratua. Era berean, jardueraren egiaztatzea, salgaien banaketa edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuak barne direla, pertsonen garraiorako zama-bizikletentzako izan ezik.

b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

1. Funts propioen edo beste entitate batzuetatik jasotako justifikazioa: proiektua edo jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da atal hori.

2. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda: udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

3. Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

4. Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak: dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatuko dira, pertsona edo entitate onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) erantsita.

5. Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

6. Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

– Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea egikaritzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

– Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

– Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari dagokion zatian egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehunetik gorakoa.

– Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—, edo non, hala izanez gero, adierazten den ez dela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu.

Dirulaguntza hau justifikatzen duen erositako ibilgailua gutxienez 5 urtez mantentzeko baldintza betetzen dela egiaztatzeko, ibilgailuaren titulartasuna ofizios egiaztatuko da urtero. Errentamendu-kasuetan, errentariak dagokion urtean ordaindutako kuoten egiaztagiria aurkeztu beharko du 2026tik 2030era bitarteko urte bakoitzaren amaierako abenduaren 31 baino lehen. Hala ere, udalak baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa eskatu ahal izango du, eta informazio hori ez aurkezteak dagokion itzulketa eskatzea ekar dezake.

15. artikulua: dirulaguntzen publikotasuna

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) egongo da eskuragarri, eta deialdiaren ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Horrez gain, dirulaguntzen berri emango da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, Dirulaguntzen Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

16. artikulua: interpretatzea eta aplikatzea den araudia

Oinarri hauek interpretatzean zalantzak sortuz gero, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua aplikatu dira, bai eta gainerako arau aplikagarriak ere.

Oinarri hauetan aipatzen diren udal ordenantza eta erregelamenduak Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) kontsultatu ahalko dira, web-orri horren bitartez, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoaren arabera; argitara emango dira emandako dirulaguntzak eta haien zenbatekoa, xedea edo helburua eta pertsona onuradunak adieraziz, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeko irizpideak aintzat harturik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 29an

Mugikortasuna Kudeatzeko Ataleko burua
DIEGO ROMO ARTUTX